

JUANTXO-TXIKI SINISBERA (13)

Bizitzako gora-beerarik ez dakillako da Juantxo-txiki ain sinisbera. Esandako guztiak sinisten ditu zalantzarik gabe. Batez be bere gurasoengan dau uste oso-oso: eurak aiñakorik besterik iñor ez munduan.

Aundienak, indartsuenak, bizkorrenak, jakintsuenak, aberatsenak beti, Juantxo-txikirentzat, bere gurasoak. Beste edozein baiño geiago. Bere usteetan, beintzat.

Sinistuko dautzu esaten dautsazun guztia.

Ara zer gertatu jatan Juantxo-txikiren arrebarekin:

—Baiña, Anetxo, zergaitik egin dozu oker ori?

—Oso gaiztoa naizelako.

—Zu ez zara gaiztoa.

—Bai, oso-oso gaiztoa naiz!

—Zelan, baiña...?

—Danak orixe esaten dauste, amaxok be bai.

Amatxok esan ezkeru, Anetxok sinistu; eta, sinistu ezkeru, okerrak egin bear. Nai eta nai ez. Amatxori arazoia emon bear. Amaren esanak beti izaten dira egi; beraz Anetxo gaiztoa zala sinistuta egoan eta gaiztoa izan ezkeru, gaiztakeriak egin bear. Orra zer korapillo!

* * *

Juantxo-txiki ona dala pentsatu eta berari esan. Ona dala sinistu erazi. Onbide guztiak beregan dituala esan eta onbide orrean neurrian jokatu bear dauela munduan. Ori sinisten dozula, agertu umeari.

Ausartsua izatea nai dozu Juantxo-txiki? Ausarta dala esan eta ausartsu jokutzen saiatuko da. Ona dala esan eta ondo jokutzen saiatuko da. Ez sekulan esan gaiztoa danik.

* * *

Umetxoak okerrik egiten badau, ez pentsa gogo okerrakin gelditzen danik betirako. Okerra egin dau, baiña damutu jako. Aaztu be bai. Argaltasunaren fruitua izan dau oker ori eta ez gogo gaiztoarena.

Oker egiten dauanean, itz gozo batek mesede geiago egingo dautso esarre bizitik sortutako belarrondokoak baiño. Aurpegiko eta zapladako orrek biotza mingoztuko dautso Juantxo-txikiri; ohea da, gaizki egin dauela adierazi eta zergaitik dagoen gaizki egindako ori azaidu.

Baiña gozo, eta arrazoi-bidean eta jipoika eta garrazika egin barik.

* * *

Ondo portatzen danean goratu zure umetxoa. Txaio egin. Baiña gora eta beerako itzak euren neurria dauke. Geiegizkoa txarra izaten da.

Beti geiegizkoan ibilli ezkeru, azkenerako ez dautzu kasurik egingo.

Neurritsua izan.